

Esalege eta ateraldiak.

A se páre, karakola ta bare.
Abade makar kúku Lezama aldekoa, baztárrak endrédateko ála alakoa.
Abaden lapíko, txikerra baya goso.
Aberatza: infernuko lebatza; póbre: seruko lore.
Abestu díun gánoras, entzun deiñ Mánttonek.
Ábi iñ ordureko txori ill.
Adískide sárrak eta kóntuk gárbik.
Aguasille seriote, kakas beterik darok kokote.
Agur: lusegáñe labur, laburgáñe luse, agur ankaluse.
Agurre laburre, bóta surtera egurre.
Ai Santa Maríñe Santa Maríñe, esne gitxíes asko iñe.
Aitte sélango, seme álango.
Aittek iñ, semek desiñ.
Akabúrengo sorra kánpaik paga deyela.
Álau baten sótes ónek artésaten.
Amábi: katu bustanen kána bi.
Amáka: katuk oyan kaka.
Amar: katuk itten dau marmar.
Amárrak: súrtuteko mámarrak.
Amen: an saráneko emen.
An bere txakúrrek órtotzik.
Andi báda, tángana; txikerra báda, enána. Mundu onetan esta fáltako se esana.
Andramari martikon érongot ume txikon.
Andrandik kópu májo.
Andren ekiñe ta oiko ittumiñe...
António Polónio danbolinderue, istérrak sabaldúte yóten dau sóñue.
António Polónio peroliplan, gure txakúrre errekan.
Ardau sarra, úrtekas onduko, ónena.
Ardi baltza íxeten da súriñ árten bere.
Aratoste, básatoste, básabatiste.
Arraiñ andik txikerra yan.
Arratiko sekorra, txikerra baya gogorra.
Arrausi luse: logure edo gose.
Ásauko beye, erróluse.
Asi iñon es, bertan gogortu.
Asi tte akába.
Áste da akábate.
Áste da dana.
Asto yon ta mando etorri.
Ásteko, séoser píkateko; óstekok, karíñus iñékok.
Atzon narru, merken da karu.
Ausoko beyek erro luse.
Axe nora, ara.
Bada estráñu díñena, baya díñenen séoser bada.
Bakotzari berana.
Báperesa gitxíau da.
Bastárretzean béranduan / étzera juátia arma nuan / etzératute sútondoan / fanfárrerie
Bat: Batzi parrat.
Batasbéste kittu, unokonótro eun frallek bérreun pótro.
Baye? Bayek sulo asko dekos.

Bederátzi, katúnarru eratzi.
Begíbakarra alkate.
Begíederra eperra.
Beiñ asi eskéro akábate dator.
Berákatza baño fiñau da ori.
Bérbak axek doros.
Beti bearren ta kaka morralen.
Bi: Bátxieperdi.
Biarrárte, Jangoikok gure báda.
Bierrárte, Jainkok gure báda.
Bixerrak estau ítten gixona.
Bixi esiñik on baño oba ill.
Bixirik estáune, íllte.
Boltze bai, dirurik es.
Bost: kakatan prost.
Burubákok txapela bérres.
Bururik estékonak txapelik ber es.
Dan dánantzat sártzen da egúski.
Dana sue/ dana kea topa aun/ súten sartena/ sartena sutén.
Danak deko beran aldi.
Dáunen aittu esen, estáunen esiñ gasta.
Dékonak deko.
Dékonak erákusten dau.
Dékonari gáltzen dako.
Dékonari kendu leyo.
Dénporek konpónduko dau.
Dénporek osátuko dau.
Díñena diñela, éurek konpondu deyela.
Díñenen, íxao da.
Diru satza deke órkok.
Dokuméntu dokuméntu da.
Edádek estau parkátuten.
Edan siéles ta egon orméles.
Edúrrurte, laboréurte.
Égi, bekókipen begi.
Ekiñek komédik dekos.
Emole gitxi, eskale asko.
Emona, artu.
Emona, galdu.
Emónak, emónta.
Émote ona, ártze obe.
Entzun gure estáune baño górraurik estau.
Ereiñ eskéro, batu gero.
Erosi, merke; artu, karu.
Errementari baño obe dok sesteru, lepo bet egurréas kolko bete diru.
Errementariñ etzen, sotza burrúntzi.
Erresponso luse, górtako bei murruse.
Esalegek ólan diño, dékonak deko.
Esana bat, agindu bi, órrekas bíekas kontent adi.
Esának esánta, kóntu bárriri ekiñ deyétzun.
Ésatetik íttera ederra alde.
Esiñe ekiñek konpónduten i deu.

Espabere mállutxu betéas agíñek ausi, kiski káuski.
Espátakas atxiñe, tíroka gaur, persónontzat persone ser dan: aur.
Esta gálduko leorres.
Éstala, bádala; au da au, fenómene dala.
Estaméntu militarra, ondo jénte klase txarra.
Estau obísporik abade ixen bakorik.
Estaun lékun élei ostu iñok eser.
Estékonari éleyo kendu.
Estudiánten kóntuk, léngokas sántuk, gáurkokas kántuk.
Eurin gáneko leye, eurin geye.
Ez aberatzik, es póbrerik, esta emen lótuko dánik.
Garbittasúnik ándiñe, lóittuten estána ixen fiñe.
Gaséta, gusurres betéta.
Gatíka: artóa satíka.
Gauérdiko auntzen estule.
Gaes katu dának báltzak.
Gaur, bier tetzi, ílko direla emerétzi.
Gáurik argíena baño egúnik illúnena argíau.
Gero, otz estána bero, bero estána otz, agur ankamotz.
Gero, sópas en kaldéro.
Gixona, árbola meatza.
Glukosa lar, biotza sar, edade txarrak orixe dakar.
Goarde loak artúte, suge oyan sartúte.
Gose poderose, larri egarri.
Gosgorri, axe edo auri; arrasgorri dénpora argi.
Gústuko lékun, aldatzik es.
Ibilli seiñ es, neu andíes.
Ibillin porasus íkisten da.
Íkistek estakar kalterik.
Ikusi esen siñestu es.
Iñ edo ausi.
Iñ edo desiñ.
Iretargi bete, sóto bete.
Iru: kolkobete diru.
Ittoson, itto oson.
Ítzun erriñ e tuérto alkate.
Ixena, eperdi gisena; apellidu, Juan barkilleru.
Ixena, okele gisena; apellidu, Juan barkilleru.
Ixénak ixénta.
Ixilleko kóntuk egunargitten salúnbra.
Jainko bat i da eta bera naiko.
Jangoiko bat eta bera naiko.
Jangoikóa de Biskáya, Dios de Álaba.
Jaune, es entzun guk díñune.
Jáuntxu txikíto, aman seme; ijítto.
Jesúsarto baño Barrabásarto gúrau.
Jornal eskasa, bearra fránko; nik dakítten batek emétik estau yángo.
Jóse yánta bere gose, edánta bere egarri, Jósebaragarri.
Jósemose gitárra, auntzélaseko bixerra, ónik eta Gernikera bótako leuke uskerra.
Kaka ixen es eta mokordo uste.
Kandelario lírio, atzéti ure dario (euri).
Kánpoederra, etzen gerra.

Kánpon uso, etzen otzo.
Karga mas karga, karga dan lékun deskárga.
Katun fáltara, ságuk yantzan.
Katun ume, katakume.
Kea daun lékun, sue.
Koittedu: txitek dóron miru.
Koittedun oñen, beti arantze.
Koitteduri bárre ítten dótzona, bera iñusénte galanta.
Komediánte tunánte; ánte dok elegánte.
Kóntues esta yáten.
Kónturutu orduko txorik eskápa.
Kúku baño alpérrau da ori.
Lau: sardína bakalau.
Lékuten dau Bilbo; begíre onan begíre saus.
Léte, poéte; báitte Pepéte.
Lau: sadína bakaláu.
Lékuten dau Bílbo; begíre onan begíre saus.
Lóko dának estaus Bermeon.
Lúnes i mártés, esiñ egon artes.
Lusera, idi bere susera.
Mando askok, lasto asko.
Marabidiñ idi, baya non marabidi?
Marti eskéro, ardi ase eta idi gose esa aun atziñekok.
Marti kakatzu, ie aprillen natatzu.
Míñik ónena, alboko.
Mungía, lapur gústiñ ábia.
Múrkoas arri yo seiñ arríes múrko, múrko apurtu.
Ókik se ikusi oki.
Óllok otara ta gu lotara.
On ítтетik estau kalterik.
Ondo iñen págu, ate atzen pálu.
Onerí éreiñ, au betétuteko, ónek kantza barik.
Ori da ori, katuri bildurrik estótzon txori!
Otza? Ésatén ésara lotza!
Págate deskantzu, kóbrate seru.
Pasákok pasáta.
Paséon paséon, gaus onan deséon.
Pátate tripan seiñ kolkon...
Páulo Máulo txokolatéro, pípe bétetan ánda lijéro.
Pédro eta Jóse argíñek; ormáiñen bardíñek.
Ságardi, sarrak imíñi.
Sakatu te sakatu, akabun apurtu.
Saldu, galdu.
San Andres, lau kóputen sei tremes.
San Jósetarako Erromako subi pasáta deko kúkuk.
San Migel sagik.
Santa Bárbara Santa Krus, Jauna balio sakigus, iñuséntearen ogie Jauna miserikordie. ”
Santa Maríñe, esne gitxíes asko iñe.
Sántu bet yantzi, beste bat erantzi.
Sántu sánta dának nauri ekarri.
Sapátak papeles, euri iñ tte báperes.
Sardíñe buru baño óllosko isterra obe.

Sarrak esaaun modun, “okik se ikusi oki”.
Sarrera eskéro, erdi abun.
Sartzáro, gixonak, kónturutu barik éltzen dako bateri.
Sásoiñ sásoiko.
Saspi probíntzik, naiko óñutzik.
Saspi: kolko bete báspi.
Se ikusi, a ikisi.
Seguru? Seguru, serun daun atzo seguru.
Sekretário baltza/ kánpotik etórriko/ mesede ítten daulen/ májo txupa dáunetariko.
Seóser díñenen bada seóser.
Sínfolok eta Fíñok yángo leukek, ekarri eskéro iñok.
Sor sarra, sor txarra.
Sorginkerírik ándiñe, mundu onetan póbre dala ankábiko fiñe.
Soro dának estaus Bermeon esánta yo aten.
Suk iñ tte guk desiñ.
Surrute eta yántze, orixe gásten trántze.
Titéra bete esti oge barrill bete binágre baño.
Txakur argala, ardi utze; gixon póbre, ames utze.
Txakurrek asurreri esa ótzona: gogor saus baya estekot prisarik.
Txátxok eta Krónek, étzeudek péska askorik órrek.
Tximíñeti gora, kea daríola.
Udeko nei neguko, bakotxak berana deko; guk dékune euskal egune, euskal ekiñe, itxíesiñe.
Umen sentzune, etzen entzune.
Umeri emóiosu kordela luse eta umek ingotzu edosiñ gause.
Unokonótro sei frallek amábi pótro.
Urdulisko abade, estekot berak dékon sakade.
Urdulístarra esta txarra.
Ure fáltan egarri, yáteko urri tte gose, Áfrikaradi para saittese.
Urek ekarri, axek éron.
Urek ekarri, urek éron.
Urte sélau, múrko álau.
Urtebarri, txarríbelarri, dékonak estékonari, nik estekot eta niri, espabere mállutxu betéas
Úrtek bere erákatzi ítten daure.
Uskerra saldu te púztatza erosi.
Yaiótzek eriótza dakar.
Yákittek estakar kalterik.
Yan barik esin bixi.
Yan esen élei errendidu. Es yan, es lan.
Yáte esta derriorra; derriorra ílte da.
Yátek estau etze gáltzen; édatek eta yokok.
Yoko esta errénte.
Yoneko, yónta.
Yoskillen etzen, frakasárrak eta súlok bárrik.